

DESBOTERETUZ BERDINTASUNA: MASKULINITEAK FEMINISMOTIK (MUTILENTZAT)

Genero berdintasuna helburu, gizon izateko modua birpentsatu eta desboteretze prozesuak gauzatzeko beharra dugu. Egungo jendartearen eraldaketa eta gizarte parekidearen eraikuntza bada gure ardura. Parekidetasun eza ematen den jendartearen, emakume eta gizonok kokapen sozial ezberdina izanik, prozesu ezberdinak burutzeko beharra dugu: emakumeek boteretze prozesuak egiten dituzten bitartean, gizonok badugu bizitzako arlo ezberdinetan indarkeria, pribilegio eta botereari dagokioneko lanketa egitearen ardura. Oinarriko kontzeptuei erreparatu, indarkeria motak aztertu eta bizi-penetatik abiatuta, elkarrekin hausnartuko dugu. Maila teoriko nahiz praktikoan, desboteretzeak zer suposatzen duen landuko dugu; dagokiguna burutzeko bidean, kontzientziatu eta ekin! Lehentasuna eman diezaiogun Feminismoak dakarkigunari, bide luzea daukagu aurretik.

HELBURUAK

- Geure jendartearen gizon izateko modua birpentsatu eta maskulinitateen inguruko talde hausnarketa egitea.
- Plano teorikoaz gain, egunerokoan ekintzara pasatzeko konpromezuak ezartzea.
- Feminismoak dakarren ekarpen eta proposamenei lehentasuna ematea.

EDUKIA

- Maskulinitateak eta gizon izateko moduak.
- Sexu/genero sistema eta oinarriko kontzeptuak.
- Indarkeria zuzena, estrukturala eta sinbolikoa.
- Desboteretze prozesuak parekitasunaren bidean.
- Intentzioa eta inpaktuaren arteko aldea.
- Gizonok konpromezuak hartzeko garaia.

METODOLOGIA

Oinarriko kontzeptuetatik abiatuta, talde hausnarketa posible egingo dituen ariketak burutuko ditugu. Dinamika ezberdinak erabiliz, bizipenak elkarbanatu eta talde gisa daukagun zereginez arituko gara. Guztien partaidetza oinarri duen metodologia erabiliko dugu, teoria feministaz, gorputzaz eta emozioez baliatuta. Elkarrizketa teorikoak izateaz gain, kontaktua eta modu anitzetako adierazpena erabiliko dugu; hitzaren bidez, idazketa eta marrazketaren bidez eta baita gorputzaren adierazpenaren bidez egingo dugu. Gizon izateko modu hegemonikoak kolokan jartzen dituen tresnak erabiliko ditugu, prozesuan bertan ere, deserosotasunari lekua emanez.